

# HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK

## JASOTZEKO FITXA

### ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezten.

<b>1. Erakundearen izena:</b>	LANDETA BURDIN LANAK BERRIA, S.L.
<b>2. Sektorea:</b>	SIDEROMETALURGIA - GALDARAGINTZA
<b>3. Langile kopurua:</b>	18-20
<b>4. Webgunea:</b>	<a href="mailto:info@landetaburdinlanak.eus">info@landetaburdinlanak.eus</a>
<b>5. Erakundearen jardueraren deskribapena:</b> (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak...):	<p><i>Landeta Burdin Lanak Berria, S.L. metalezko egituren eta galdaragintzaren sektorean, oro har, esperientzia egiaztatua duen enpresa da. Instalazio modernoak eta kualifikazio handiko giza taldea du. Horrela, gaitasun handiko bulego teknikoaz gain, lantokiko zein kanpoko muntaietarako eta soldaketa lanetarako, eskarmentu handiko ekipoak ditu. Gure lanen aniztasuna dela eta (industria pabiloiak, zubiak, igogailuak, etab), lan merkatu zabala dugu, eta horregatik, mota guztietako bezeroak ditugu (udalak, eraikuntza enpresak, siderurgiak, ingeniariak zentroak, etab).</i></p> <p><i>Eguneroko kudeaketan garrantzi handia ematen diegu gure lan-merkatuaren barruko ekoizpen eta prestakuntza estrategiei, berrikuntzari, hornitzaileekiko eta bezeroekiko tratuari, eta lan-talde osoa merkatuaren eskakizunen etengabeko aldatetara egokitzeari.</i></p> <p><i>Bestalde, enpresaren sorreratik (2000 urtea), euskara, laneko arlo guztietan, enpresaren lan hizkuntza izatea nahi izan genuen. Horrek konpromiso handia eskatzen zuen, lan merkatuan euskara baliatzeko zailtasun handiak baitzeuden. Baina gure konpromiso sendoarekin urrats txikiak ematen joan gara urteetan zehar, (Euskara Plana, Hizkuntza Politika, Bikain, etab), eta horren ondorioz, euskara txertatu dugu gure eguneroko funtzionamenduan, gure hornitzaile eta bezeroekin ere, neurri handi batean, euskararen presentzia inplementatu eta areagotuz.</i></p>

### Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:

<b>Solaskidearen izen-abizenak:</b>	Kepa Alberdi Egaña
<b>Helbide elektronikoa:</b>	<a href="mailto:info@landetaburdinlanak.eus">info@landetaburdinlanak.eus</a>
<b>Telefonoa:</b>	943815497 - 605770903

## PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

<b>1. Praktika onaren titulua:</b>	<b><i>Bezero eta hornitzaileekin euskaraz komunikatzeko ahalegina.</i></b>
<b>2. Praktika onaren azalpena:</b> <b>Zer da? Zertan datza?</b> <b>Nondik dator?</b> <b>Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?</b>	<p><i>Barne harremana kudeatzen dugun moduan, kanpoko harremanak ere, ahozkoak eta idatzizkoak, formalak eta informalak, euskaraz izaten dira, ahal den heinean. Horrela, bezero eta hornitzaile euskaldunekin dugun komunikazioa orokorrean, ahal den neurrian, euskarazkoa da.</i></p> <p><i>Bezero eta hornitzaileekin euskara hizkuntzan oinarritutako harreman hau formalizatzeko, gutun baten bidez jakinarazi zitzaien Euskara-plana genuela eta 2012az geroztik Hizkuntza-politika finkatuta genuela enpresan. Beraz, jakinarazi zitzaien euskara lehenesten dugula gure harremanetan, eta alde horretatik, beraiei ere, ahalegin bat eskatzen zitzaien euskarazko harreman hori nolabait formalizatzeko.</i></p> <p><i>Azpimarratu behar da, ustekabe pozgarria izan dugula, harrezkero hornitzaile eta bezero batzuekin dugun ahozko eta idatzizko komunikazioa euskarazkoa baita. Bestalde, nabaritu dugu, beste bezero eta hornitzaile batzuen ahalegina dela eta, euskararen erabilerak bere lekua egin duela harreman orokorrean.</i></p>

## PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)



Anardi 9 – Lasao Auzoa.  
20730 AZPEITIA (GIPUZKOA)  
Tfno. 943 815497  
E-mail: [kepa@landetaburdinlanak.com](mailto:kepa@landetaburdinlanak.com)  
C.I.F.: A-20701439

Azpeitian, 2016ko malatzaren 24

Jaun / Andre hori:

*Idatzi honen bidez jakinarazi nahi dizuegu **Landeta Burdin Lanakek** duela urte batzuk euskara-plana martxan jarri zuela eta bere hizkuntza-politika ere definitua duela. Ondorioz, **euskararen erabilerari lehentasuna** eman nahi izan diogu gure kanpo nahiz barruko harremani. Hori dela eta, eskertuko genizueke aurrerantzean, **fakturak, emate-agiriak eta idatzizko agiriak**, ahal den neurrian, **euskaraz** igortzea.*

*Besterik gabe, harrera ona emango diozelakoan eta elkarlanean jarraitzeko apustu eraginkorra den uste osoz, jaso ezazue gure agurrik beroena.*

Adeltasunez,

Kepa Alberdi.

---

*Estimados señores/señoras:*

*Mediante el presente escrito, queremos informarles de que hace algunos años en **Landeta Burdin Lanak** decidimos poner en marcha el plan de euskera y a día de hoy, tenemos definida nuestra política lingüística. Como consecuencia, hemos priorizado el uso del euskera en nuestras relaciones tanto internas como externas. Es por ello que les **solicitamos**, en la medida de lo posible, **nos remitan las facturas, albaranes y demás documentos en euskera.***

*Sin otro particular, confiamos en la buena acogida de dicha propuesta y con la esperanza de que sigamos colaborando tan estrechamente como hasta la fecha, aprovechamos la ocasión para saludarles.*

Atentamente,

Kepa Alberdi.

# BEZEROAK

Izena	Nongoa (Herria)	Ahozko harremana euskaraz norekin:	Bidaltzen dizkiogun dokumentuak	Dokumentuak zein hizkuntzatan dauden
ALBERDI MEKANIZATUAK	AZPEITIA ( GIPUZKOA )	FELIX	Faktura	EUSKARA
			Emate-agiria	EUSKARA
			Kontratua	
			Aurrekontua	EUSKARA
			Bestelako dokumentuak (zehaztu):	
ARCELORMITTAL ZUMARRAGA	ZUMARRAGA ( GIPUZKOA )	JOSE ANTONIO AREIZAGA	Faktura	GAZTELERA
			Emate-agiria	GAZTELERA
			Kontratua	GAZTELERA
			Aurrekontua	GAZTELERA
			Bestelako dokumentuak (zehaztu):	
ARCELORMITTAL BERGARA	BERGARA ( GIPUZKOA )	ISAAC	Faktura	GAZTELERA
			Emate-agiria	GAZTELERA
			Kontratua	GAZTELERA
			Aurrekontua	GAZTELERA
			Bestelako dokumentuak (zehaztu):	
ARIMAR	AZPEITIA ( GIPUZKOA )	IMANOL	Faktura	EUSKARA
			Emate-agiria	EUSKARA
			Kontratua	
			Aurrekontua	EUSKARA
			Bestelako dokumentuak (zehaztu):	
ASTIGARRAGA KIT LINE	AZPEITIA ( GIPUZKOA )	JOSE JUAN	Faktura	EUSKARA
			Emate-agiria	EUSKARA
			Kontratua	
			Aurrekontua	EUSKARA
			Bestelako dokumentuak (zehaztu):	

# HORNITZAILEAK

Izena	Nongoa (Herria)	Ahozko harremana euskaraz norekin:	Bidaltzen dizkigun dokumentuak	Dokumentuak zein hizkuntzatan dauden
OLAN	AGURAIN ( ARABA )	EZ	Faktura	GAZTELERA
			Emate-agiria	GAZTELERA
			Kontratua	
			Aurrekontua	GAZTELERA
			Bestelako dokumentuak (zehaztu):	
ONELAN	AZPEITIA ( GIPUZKOA )	JON	Faktura	EUSKARA
			Emate-agiria	EUSKARA
			Kontratua	
			Aurrekontua	EUSKARA
			Bestelako dokumentuak (zehaztu):	Formatu guztiak gaztelera baino idatzia euskaraz.
PAL PLASTIC	LEGUTIO ( ARABA )	EZ	Faktura	GAZTELERA
			Emate-agiria	GAZTELERA
			Kontratua	
			Aurrekontua	GAZTELERA
			Bestelako dokumentuak (zehaztu):	
PERFYDE	HERNANI ( GIPUZKOA )	ITXASO	Faktura	GAZTELERA
			Emate-agiria	GAZTELERA
			Kontratua	
			Aurrekontua	GAZTELERA
			Bestelako dokumentuak (zehaztu):	
QUIVACOLOR	ITZIAR ( GIPUZKOA )	EZ	Faktura	GAZTELERA
			Emate-agiria	GAZTELERA
			Kontratua	
			Aurrekontua	GAZTELERA
			Bestelako dokumentuak (zehaztu):	